

ANDOAINGO EUSKARAREN BIZIBERRITZE PLAN NAGUSIA

2011rako Kudeaketa Plana

ANDOAINGO UDALA



2010eko azaroa

AURKIBIDEA

1.- Familia Transmisioa	3.orr.
2.- Euskalduntzea-Prestakuntza	6.orr.
3.- Irakaskuntza	11.orr.
4.- Administrazioa	14.orr.
5.- Lan mundua	59.orr.
6.- Aisia	64.orr.
7.- Kirola	66.orr.
8.- Kulturgintza	69.orr.
9.- Komunikabideak	77.orr.
10.- Teknologia berriak	80.orr.



1. FAMILIA TRANSMISIOA



1. FAMILIA TRANSMISIOA

HELBURUA ETA ADIERAZLEAK



1.1. EUSKARAREN ERABILERA HANDITU ETXeko ESPARRUAN, ETA TRANSMISIOA ZIURTATU FAMILIA KIDEEN ARTEKO HIZKUNTZA IZAN DADIN.	2010	2011
Derrigorrezko hezkuntza sisteman sartzean, lehen hizkuntza euskara duten haurren %	20,26	JARRAIPENA
Etxean erabiltzen den hizkuntza %		
euskara eta gaztelania %	16,44	16,44
euskara %	21,11	21,11
gaztelania %	61,72	61,72
beste bat %	0,73	0,73
Lehen hizkuntza (>5urte) adinaren arabera		
euskara eta gaztelania kop.	589	JARRAIPENA
euskara kop.	4740	JARRAIPENA
gaztelania kop.	7821	JARRAIPENA
beste bat kop.	180	JARRAIPENA
Hizkuntzaren bilakaera (>5urte) adinaren arabera		
jatorrizko elebidunak (kop.)	463	JARRAIPENA
euskaldun berriak (kop.)	1835	JARRAIPENA
partzialki euskaldun berriak (kop.)	1774	JARRAIPENA
partzialki erdaldunduak (kop.)	328	JARRAIPENA
guztiz erdaldunduak (kop.)	98	JARRAIPENA
guztira (kop.)	13330	JARRAIPENA
euskaldun zaharrak (kop.)	4440	JARRAIPENA
erdaldun zaharrak (kop.)	4392	JARRAIPENA

2011rako baliorik zehaztu ez zaien adierazleei, jarraipena egingo zaie, baina oraingoz helburu zehatzik jarri gabe.



1. FAMILIA TRANSMISIOA



EKINTZAK

1.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

- Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia...
- Buruntzaldeko familia bidezko transmisio plana osatzen duten lau programak: 1. programa, gurasogaiak sentsibilizatzea; 2. programa, jaioberrien gurasoak sentsibilizatzea; 3. programa, haur eskoletako gurasoak sentsibilizatzea; 4. programa, ikastetxeekin elkarlana garatzea.

§ Kultura, ekonomia edo politika munduko pertsona erreferentzialen bitartez mezuak zabaldu komunikabideetan, musika bidez, kirolaren bitartez, ikastetxeetan.

1.1.2. KOMUNIKAZIOA

- Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, Udal zerbitzuetako guneetan (Urigainen, Ambrosiaenean, Zahar Etxean, Kiroldegan, Basteron...) eskuragarri jarri, eskoletan...
- Haurtzetako zerbitzuei buruzko informazioa ezagutzera eman: Andoaingo haur eskolak, ludoteka...
- Guraso etorri berriei euskal kulturaren inguruko informazioa eman: euskara eta askotariko kultur adierazpenak.

1.1.3. EKITALDIAK ANTOLATU

- Gurasoentzat ipuin kontaketa tailerra.
- Larunbatetan ere euskaraz programarekin jarraitu.



2. EUSKALDUNTZEA-PRESTAKUNTZA



2. EUSKALDUNTZEA-PRESTAKUNTZA



HELBURUA ETA ADIERAZLEAK

2.1. EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOA ETA EUSKARAREN EZAGUTZA HANDITU HERRITARREN ARTEAN.	2010	2011
Ikasle kopurua euskaltegietan	145	151
Ikasleak/ (erdaldunak+ elebidun hartzaileak)	0,02	0,023
Ikasleei eskainitako diru-laguntzak, guztira	11405,05	16500
Xede bereziekin antolatutako ikastaro kopurua	1	1
Xede bereziko ikastaroetako ikasle kopurua	8	14
Ikasleen matrikulazioaren eta ber-matrikulazioaren bilakaera %	54,76	60
Biztanleriaren hizkuntza gaitasuna %		
elebidunak %	50,23	50,73
elebidun hartzaileak %	21,01	21,51
erdaldun elebakarrak %	28,76	27,76
Euskal hiztunen alfabetatze maila %		
erdizka alfabetatuak %	10,64	10,25
alfabetatuak %	87,8	88,19
alfabetatu gabeak %	1,56	1,56
Kale neurketaren emaitza %	26,39	27,39



2. EUSKALDUNTZEA-PRESTAKUNTZA



EKINTZAK

2.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

- Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko.
- Gaur oraindik erdaldun elebakar diren herritarrak euskarara hurbiltzeko motibazio saioak antolatu.
- Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatu, euskara ikasteak ekar liezazkiekeen onurak azpimarratuz. Etorri berrientzako harrera programekin uztartu. (AISA programa)
- Ekimenak definitu eta martxan jarri, herriko eta inguruko eragileekin elkarlanean: kartelak, tokian tokiko komunikabideetan mezuak, euskararen egunean agintari politikoen agerraldiak, pegatinak, egutegiak... Kanpainak sustatu.
- Motibazioa landu: motibazio praktikoa (lana bilatzera bideratua...), motibazio sentimentala (gurea da, aspaldikoa...) eta motibazio kulturala (eskaintza kultural bat galtzen den sentsazioa...) eta bizikidetzaren soziala hobetzeko motibazioa.
- Euskara ikasten dabilena saritu: sarrerak zozketatu, eskualdeko egunkari edo aldizkariren batera urtebeteko harpidetza...
- Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaldu.

2.1.2 KOMUNIKAZIOA

- Eskualdeko, Beterriko, Tolosako eta Donostiako euskaltegien gaineko gida osatu: zerbitzuak, ordutegiak, helbideak... eta herritarrengana zabaldu.
- Euskara ikasteko prozesuaren gaineko informazio orokorra eskaini modu erakargarrian: web orria erabilita, triptikoak, eskualdeko aldizkaria (prozesua, Udalak zer laguntzen duen, metodologia, ziurtagirien baliokidetzak, egonaldiak familia euskaldunetan programa...).
- Etorri berriei bereziki zuzendutako komunikazio kanpainak egin: mezuak zaindu, bere hizkuntzetara egokitu... (AISA programa)



2. EUSKALDUNTZEA-PRESTAKUNTZA



2.1.3 LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaini baldintza batzuk betez: aurrez aurreko klaseetarako nahiz autoikaskuntza bidezkoetarako.
- Diru-laguntzak eman: udako euskarazko ikastaroetara joateko, bestelako euskarazko jardunaldi edo topaguneetan parte hartzeko, baldintza batzuk betetzen dituzten herritarren artean.

2.1.4. IKASTARO BEREZIAK ANTOLATU ETA EUSKARRIAK ESKAINI

- Mintzalaguna egitasmoa martxan jarri. Formula berriak bilatu (atzerritarrek eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta), bazkari-laguna, kirol-laguna.
- Eskualdeko euskaltegiekin elkarlana sustatu, Buruntzaldeko udalen programaren arabera.
- Etorri berriei zuzendutako ikastaro bereziak antolatu, metodologia egokia erabilia.
- Ahozotasuna sustatzeko programa (Buruntzaldeko udalen programa aurreikusitakoa): gaztetxoek artean ahozotasuna lantzea bertsolaritzaren bidez.



2. EUSKALDUNTZEA-PRESTAKUNTZA



HELBURUA ETA ADIERAZLEAK

2.2. HELDUEN PRESTAKUNTZA ESKAINTZAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU.	2010	2011
Helduen prestakuntza euskaraz, edo batez ere euskaraz, ematen duten akademia/zentro/elkarteak %	0	0
Udaletik kanpoko egiturek euskaraz ematen dituzten ikastaroak %	0	0
Udalak antolatzen dituen euskarazko ikastaroak %	12	12
Ikasle kopurua euskaraz emandako ikastaroetan %	4	4

EKINTZAK

2.2.1. SENTSIBILIZAZIOA

- Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenengan eragin (Bengoetxea eta Mendi autoeskolak, Bertxin eta Santa Cruz jubilatutako elkarteak, kultur elkarteak, Salkin merkatari elkarteak), ikastaroak euskaraz ere antolatzeko.

2.2.2. KOMUNIKAZIOA

- Informazioa eman herritarrei euskarazko helduen prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, web orrian zintzilikatu...

2.2.3. ESKAINTZA SUSTATU

- Udalak antolatzen dituen ikastaroetan euskarazkoak bultzatu.

2.2.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Laguntza eskaini, beste eragileek (Bengoetxea eta Mendi autoeskolak, Bertxin eta Santa Cruz jubilatutako elkarteak, kultur elkarteak, Salkin merkatari elkarteak), antolatzen dituzten ikastaroak euskaraz izateko: matrikula merkeagoak, diru-laguntzak, irakasleak topatzeko bideak, materialak...



3. IRAKASKUNTZA



3. IRAKASKUNTZA



HELBURUA ETA ADIERAZLEAK

3.1. EUSKARAZKO IKASTEREDUAK SUSTATU.	2010	2011
0-2 bitarteko matrikulazioa euskaraz haurreskoletan (%)	100	100
Haur eta Lehen Hezkuntzako matrikulazioa D ereduan (%)	98,42	99,25
DBH-ko matrikulazioa D ereduan %	86,1	90
Batxilergoko matrikulazioa D ereduan %	58,1	60
Lanbide Heziketako matrikulazioa D ereduan %	13,1	13,1
Etorri berrien matrikulazioa D ereduetan %	83,3	JARRAIPENA

2011rako baliorik zehaztu ez zaien adierazleei, jarraipena egingo zaie, baina oraingoz helburu zehatzik jarri gabe.

EKINTZAK

3.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

- Lanbide Heziketan sartzear dauden gazteengan eragin, euskarazko ereduetan ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko: gutunak, smsak, hitzalditxoak...
- Ikastetxeetako hizkuntza normalizaziorako planak burutu, ikastetxeetako eta udaletako planen arteko koordinazioa hobetzeko, Buruntzaldeko udalen programan aurreikusitako moduan.

3.1.3. ESKAINTZA SUSTATU

- Batxilergoko eta lanbide heziketa zikloetako hizkuntza eskaintzan euskarazko eredua areagotu, Buruntzaldeko udalen programan aurreikusitako moduan.



3. IRAKASKUNTZA



HELBURUA ETA ADIERAZLEAK

3.2. ESKOLAZ KANPOKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTU.	2010	2011
Eskolaz kanpoko prestakuntza euskaraz, edo gehienbat euskaraz, ematen dituzten akademiak %	100	100
Eskolaz kanpoko prestakuntzan euskaraz ematen diren ikastaroak %	100	100
Ikasle kopurua eskolaz kanpoko euskarazko ikastaroetan %	100	100

EKINTZAK

3.2.1. KOMUNIKAZIOA

- Informazioa eman herritarrei euskarazko eskolaz kanpoko prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, web orrian ezagutzera eman...



4. ADMINISTRAZIOA



AURKIBIDEA

1.- Hizkuntza gaitasuna	16. orr.
2.- Ahozko komunikazioa	20. orr.
3.- Idatzizko komunikazioa	26. orr.
4.- Itzulpenak	35. orr.
5.- Prestakuntza orokorra	37. orr.
6.- Tresna eta aplikazio informatikoa	39. orr.
7.- Internet eta intranet sareak	42. orr.
8.- Argitalpenak	45. orr.
9.- Hizkuntza paisaia	47. orr.
10.- Iragarpenak, publizitatea, kanpainak	50. orr.
11.- Diru-laguntzak	53. orr.
12.- Kontratazioak	55. orr.



1.- HIZKUNTZA GAITASUNA



HIZKUNTZA GAITASUNA

1.1. HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN EGIAZTAPENAK AREAGOTU	2010	2011
1.1.1.-Langileak, guztira	126	JARRAIPENA
1.1.2.-Derrigortasun-data dute %	71,4	71,4
1.1.3.-Derrigortasun-data igarota izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna:		
Egiaztatu dute %	90	90
Ez dute egiaztatu %	10	10
1.1.4.-Derrigortasun-data igaro gabe izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna:		
Egiaztatu dute %	-	JARRAIPENA
Ez dute egiaztatu %	-	JARRAIPENA
1.1.5.-Derrigortasun-data ez izanda ere, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dute %	27,8	27,8
1.1.6.-Derrigortasun-data izan zein ez izan, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dute %	72,2	72,2
1.1.7.-Derrigortasun-data izan zein ez izan, dagokien hizkuntza-eskakizuna baino bat gutxiago egiaztatu dute %	7,9	7,9
1.1.8.-Hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu dute %	80,1	80,1
1.2. SALBUETSITAKOEN EUSKARAREN EZAGUTZA HOBETU	2010	2011
1.2.1.-Salbuetsien kopurua, guztira	3	3
1.2.2.-Euskaraz lan egiteko maila duten salbuetsiak %	100	100
1.3. ARDURADUN POLITIKOEN EUSKARAREN EZAGUTZA HOBETU	2010	2011
1.3.1.-Arduradun politikoen kopurua, guztira	16	17
1.3.2.-Euskaraz ulertzeko gai direnak %	56,25	JARRAIPENA
1.3.3.-Euskaraz hitz egiteko gai direnak %	37,5	JARRAIPENA
1.3.4.-Euskaraz idazteko gai direnak %	31,25	JARRAIPENA
1.3.5.-Euskaraz irakurtzeko gai direnak %	56,25	JARRAIPENA
1.3.6.-Euskaraz lan egiteko maila dutenak %	31,25	JARRAIPENA
1.4. HE EGIAZTATUA DUTEN LANGILEEN EUSKARAREN EZAGUTZA HOBETU	2010	2011
1.4.1.-Ikastaroetara joandako langile kopurua	2	3
1.4.2.-Trebakuntza jaso duten langile kopurua	0	8

2011rako baliorik zehaztu ez zaien adierazleei, jarraipena egingo zaie, baina oraingoz helburu zehatzik jarri gabe.



HIZKUNTZA GAITASUNA

1.1.- Hizkuntza eskakizunen egiaztapenak areagotu.

EKINTZAK
Derrigortasun-data ezarria izan ala ez izan, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten langileekin bildu, eta aztertu bakoitzarekin euskalduntze-plan pertsonalizatua adosteko aukera: ordu-kreditua, ikastaro-mota...
Derrigortasun-data izan eta dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe dutenak IVAPek antolatzen dituen euskarazko ohiko klaseetara edo HABEK homologaturiko ikastaroen artean Udal Euskara Zerbitzuak egoki jotzen dituenetara bideratu.
Lanpostuak betetzeko deialdietan, finko zein epe jakinerakoetan, euskararen ezagutza derrigorrezkoa izan ez eta meritutzat jo behar denean, 86/1997 Dekretuko 31.1 artikuluan aurreikusitako puntuaziorik gorenak baloratu.
Jadanik eginda dauden aldi baterako izendapen eta kontratazioetan hizkuntza gaitasuna aztertu eta egoki iritzitako neurri zuzentzaileak hartu.
Udalera praktikak egitera datozen ikasleei dagokien hizkuntza gaitasuna eskatu.
HAEE-IVAPen azterketa-deialdiak kudeatzerakoan, langileei zuzendutako komunikazio-moduak hobetu eta sistematizatu.
Pertsonaleko lansailarekin koordinazioa hobetu, HE kudeaketa hobetzeko.



HIZKUNTZA GAITASUNA

1.2.- Salbuetsitakoek euskararen ezagutza hobetu.

EKINTZAK
Salbuetsitakoek hizkuntza-maila eta jarrerak aztertu eta planaren garapenean txertatu.
Salbuetsitakoek egokitutako hizkuntza-prestakuntza eskaini.

1.3.- Arduradun politikoen euskararen ezagutza hobetu.

EKINTZAK
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu arduradun politikoen artean, erabilera-planean eta horren ezarpenean inplikatzeko.

1.4.- HE egiaztatua duten langileen euskararen ezagutza hobetu

EKINTZAK
Dagokien HE egiaztatutako eduki arren, euren gaitasun komunikatiboa hobetu nahi duten langileentzako ikastaroen premia aztertu eta eskaini.



2.- AHOZKO KOMUNIKAZIOA



AHOZKO KOMUNIKAZIOA

2.1. ERAKUNDEKO AHOZKO KANPOKO-HARREMANETAN EUSKARAREN ERABILERA GEHITU	2010	2011
2.1.1.- Herritarrak jartzen direnean harremanetan, erabiltzen duten hizkuntza		
	Euskara %	44,7
	Gaztelania%	55,3
2.1.2.- Beste administrazio bat jartzen denean harremanetan, erabiltzen duen hizkuntza		
	Euskara %	70
	Gaztelania%	30
2.1.4.- Telefonoan harrera euskaraz egiten da %	92,68	94
2.1.5.- Telefonoan elkarrizketa euskaraz gauzatzen da %	38,09	39
2.1.6.- Leihatilan harrera euskaraz egiten da %	64,64	65
2.1.7.- Leihatilan elkarrizketa euskaraz gauzatzen da %	37,07	38
2.1.8.- Jendaurreko ekitaldietako euskararen erabilera %	49,13	50
2.1.9.- Erantzungailuan erabiltzen den hizkuntza		
	Euskara %	0
	Gaztelania%	0
	Ele biak %	100
2.2. ERAKUNDEKO AHOZKO BARNE-HARREMANETAN EUSKARAREN ERABILERA GEHITU	2010	2011
2.2.1.- Telefonoan harrera euskaraz egiten da %	84,91	84,91
2.2.2.- Telefonoan elkarrizketa euskaraz gauzatzen da %	65,42	65,42
2.2.3.- Erakunde barruko lan-bileretako euskararen erabilera %	21,92	25
2.2.4.- Barruko harreman informaletako euskararen erabilera %	49,48	55



AHOZKO KOMUNIKAZIOA

2.3.- Azterketa komunikatiboa egin duten langileen ahozko euskararen erabilera gehitu.

- 2.3.1.-Telefonoan harrera euskaraz egiten da %
- 2.3.2.-Telefonoan elkarrizketa euskaraz gauzatzen da %
- 2.3.3.-Leihatilan harrera euskaraz egiten da %
- 2.3.4.-Leihatilan elkarrizketa euskaraz gauzatzen da %
- 2.3.5.-Jendaurreko ekitaldietako euskararen erabilera %
- 2.3.6.- Erabilera planeko langileen barruko lan-bileretako euskararen erabilera %
- 2.3.7.- Erabilera planeko langileen harreman informaletako euskararen erabilera %



Azterketa komunikatiboa egin duten langileek adierazle hauen inguruan norberak duen egoeraren gaineko pertzepzio pertsonala eman dute; pertzepzio horietatik abiatuta, langile bakoitzari dagozkion helburuak banaka eta interesatu bakoitzarekin landu eta adostuko ditu Udal Euskara Zerbitzuak.

AHOZKO KOMUNIKAZIOA

2.1.- Erakundeko ahozko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu.

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu ahozko komunikazioetarako, Andoaingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta: a) telefono eta leihatilan, herritarrekin, beste administrazioekin nola aritu jakiteko; b) hirugarrenetik ahozko kanpo-harremanak eragingo dituzten kanpo-kontratazio administratiboetan eta horiek betetzeko neurriak hartzeko; eta c) jendaurreko ekitaldietarako eta betetzen direla bermatzeko (prentsurrekoetan, erakundeak antolatutako ekitaldietan...).
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzera emateko, herritarrek dituzten hizkuntza-eskubideen gainean.
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu herritarrei eta beste administrazioei begira, Administrazioarekin euskarazko harremanak sustatze aldera.
Lehen harremana euskaraz izan dadin protokoloak zehaztu eta horiek betetzeko neurriak hartu (aurrez aurrekorako, telefonoz jarduteko...).
Adierazgarriak jarri, herritarrei euskararen erabilera-eskubideak ezagutzera emateko (mahai-gainekoak...).
Interpretazio zerbitzuaz baliatu zenbait ekintza instituzionaletan.
Udalerako lanean hasten diren langile berriei, finko nahiz behin-behineko izan, hizkuntza-irizpideei buruzko jarraibideak eman.
Kiroldegiko ikastaroak euskaraz emateko programa indartu eta areagotu



AHOZKO KOMUNIKAZIOA

2.2.- Erakundeko ahozko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu.

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu erakunde barruko ahozko komunikazioetan, Andoaingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.
Langile eta arduradun politikoengan eragin, hartzaille pasiboak prestigiatzeko.
Adierazgarriak landu, euskaraz lan egiteko prestatuta dauden langileek elkarren berri izan dezaten eta gainerakoei ezagutzera emateko (mahai gaineoak, pinak...).
Euskaraz arituko diren langileen sarea sustatu, bai ahoz eta baita idatziz ere, erabilera ohiturak sortuz joan daitezen.



AHOZKO KOMUNIKAZIOA

2.3.- Azterketa komunikatiboa egin duten langileen ahozko euskararen erabilera gehitu.

EKINTZAK
Mintza tratuak adostu azterketa komunikatiboa egin duten langile guztiekin
Mahai gaineko adierzgarriak jarri azterketa komunikatiboa egin duten langile guztiei

Oharra:

Azterketa komunikatiboa egin zaie, oro har, lanpostu zerrendakoak izanik, derrigortasun data ezarrita eduki eta dagokien HE edo bat gutxiago egiaztatu dutenei eta, merezimenduzkoa izanik, dagokioen HE egiaztatu dutenei. Nolanahi ere, unean uneko ahalbideen arabera, ekintza horietan parte hartzeko aukera emango zaie euskara lanean neurriren batean erabiltzeko gaitasuna duten gainontzeko langileei ere.



3.- IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK



IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK

3.1. ERAKUNDEKO IDATZIZKO KANPOKO-HARREMANETAN EUSKARAREN ERABILERA GEHITU, SORTZE LANA AREAGOTUZ, KOMUNIKAZIOAREN KALITATEA ZAINDUTA ETA EDOZEIN EUSKARRITAN	2010	2011
3.1.1.-Tramitazio telematikoa %	JARRAIPENA	
3.1.2.-Tramitazio telematikoan erabili den hizkuntza:		
Euskara %	JARRAIPENA	
Gaztelania %	JARRAIPENA	
Ele biak %	JARRAIPENA	
3.1.3.-Herritarrekiko harremanetan jasotako komunikazioen hizkuntza		
Euskara %	17,98	20
Gaztelania %	48,8	46,78
Ele biak %	33,22	33,22
3.1.4.-Beste administrazioekiko harremanetan jasotako komunikazioen hizkuntza		
Euskara %	8,6	8,6
Gaztelania %	19,65	19,65
Ele biak %	71,75	71,75
3.1.5.- Herritarrekiko idatzizko harremanetan igorritako komunikazioen hizkuntza		
Euskara %	20,88	22
Gaztelania %	35,77	30
Ele biak %	43,35	48
3.1.6.- Beste administrazioekiko idatzizko harremanetan igorritako komunikazioen hizkuntza		
Euskara %	25,6	28
Gaztelania %	12,03	10
Ele biak %	62,37	62
3.1.7.- Euskaraz sortutako komunikazioak %	8	11
3.1.8.- Ele biz hedatu diren komunikazioetatik, gaztelaniatik euskararako itzulpenak %	91	88

2010 eta 2011rako baliorik zehaztu ez zaien adierazleei, jarraipena egingo zaie, baina oraingoz helburu zehatzik jarri gabe.



IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK

3.2. ERAKUNDEKO IDATZIZKO BARNE-HARREMANETAN EUSKARAREN ERABILERA GEHITU, SORTZE LANA AREAGOTUZ, KOMUNIKAZIOAREN KALITATEA ZAINDUTA ETA EDOZEIN EUSKARRITAN	2010	2011
3.2.1.- Erakunde barruko idatzizko harreman ofizialetan igorritako komunikazioen hizkuntza		
Euskara %	31,74	35
Gaztelania %	35,7	33
Ele biak %	32,56	32
3.2.2.- Erakunde barruko harreman ez ofizialetan euskaraz igorri diren komunikazioak	57,58	60

3.3.- Azterketa komunikatiboa egin duten langileen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.

3.3.1.- Erabilera planaren eraginpeko langileek sortutako komunikazioen hizkuntza

Euskara %

Gaztelania %

3.3.2.- Erabilera planaren eraginpeko langileek hedatutako komunikazioen hizkuntza

Euskara %

Gaztelania %

3.4 Azterketa komunikatiboa egin duten langileen idatzizko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.

3.4.1.- Harreman formaletan sortutako komunikazioen hizkuntza

Euskara %

Gaztelania %

3.4.2.- Harreman formaletan hedatutako komunikazioen hizkuntza

Euskara %

Gaztelania %

3.4.3.- Erabilera planeko langileen harreman informaletako euskararen erabilera %

Azterketa komunikatiboa egin duten langileek adierazle hauen inguruan norberak duen egoeraren gaineko pertzeptzio pertsonala eman dute; pertzeptzio horietatik abiatuta, langile bakoitzari dagozkion helburuak banaka eta interesatu bakoitzarekin landu eta adostuko ditu Udal Euskara Zerbitzuak.



IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK

3.1.- Erakundearen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu idatzizko kanpo-harremanetan, paper bidezkoetan zein telematikoetan, Andoaingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu hirugarrenekiko idatzizko kanpo-harremanak eragingo dituzten kanpo-kontratazio administratiboetan, eta horiek betetzeko neurriak hartu, Andoaingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean: idatzizko kanpo-komunikazioetarako erakundeak ezarri dituen Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzera emateko; kanpo-harremanetan euskara ere erabiltzeak duen garrantziaz jabetzeko; teknologia berrietan eta harreman telematikoetan euskararen presentzia ziurtatzeak duen garrantzia azpimarratzeko...
Administrazioarekiko harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarrak aintzat hartu, Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi duten herritarren eroldaren bidez. Erakundearen eroldaren aplikazioa bermatzeko neurriak hartu.
Udalarekiko harremanak euskara hutsean izan nahi dituzten herritarren errolda eguneratzeko kanpainak burutu, aldian aldian herritarrei orokorrean zuzenduak, eta maiztasun handiagoz, gazteei zuzenduak "Gazteak eta administrazioa" unitate didaktikoaren laguntzaz baliatuz, ikastetxeetara hurbildu eta gazteekin harreman zuzena izateko.
Udalarekin hitzarmena sinatu duten erakundeekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko neurriak proposatu eta bitartekoak eskaini: Gipuzkoa-Donostia Kutzaren eta Udalen arteko hitzarmena, eta, kasua balitz, Euskadiko Kutzaren eta Udalen arteko hitzarmena.



IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK

EKINTZAK

Kanpora begirako dokumentu estrategiko orokorrak identifikatu, euskaratu (beharrezkoa denean), moldatu (testu argiak, zuzenak eta egokiak eta izan daitezten) eta langileen esku jarri euskarri ezberdinetan.

Idazki elebidunetan euskara nabarmentzeko irizpideak zabaldu eta betetzen direla bermatu.



IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK

EKINTZAK
<i>ITZULPENAK</i>
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu itzulpenetarako, Andoaingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.
Komunikazioa landu eta langileei jakitera eman euskaraz lan egiteko erabilgarri dauden tresnak, hiztegi elektronikoak, zalantzak argitzeko bideak...
Itzulpen zerbitzuaren erabilerarako arauak finkatu.



IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK

3.2.- Erakundearen idatzizko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu idatzizko barne-harremanetarako, Andoaingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, idatzizko barne-komunikazioetan erakundeak ezarri dituen Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzera emateko.
Adierazgarriak landu, euskaraz lan egiteko prestatuta dauden langileek elkarren berri izan dezaten eta gainerakoei horren berri emateko (outlookeko zerrendak, mahai-gainekoak, pinak...).
Espedienteen kudeaketarako aplikazio informatikoan sartzen diren tramiteetarako idatzien errebisioa egiteko prozesu bat definitu eta martxan jarri.



IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK

3.3.- Azterketa komunikatiboa egin duten langileen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotua, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.

EKINTZAK
Aholkularitza eta zuzenketa eskaini Euskara Zerbitzutik azterketa komunikatiboa egin duten langile guztiei.
Idatzizko lana errazteko dauden baliabide ezberdinak (interneteko hiztegiak, banku terminologikoak...) ezagutaratzi azterketa komunikatiboa egin duten langile guztiei, eta euren esku jarri.
E-mailetako sinaduran adierazgarriak txertatu azterketa komunikatiboa egin duten langile guztiei.
Trebatzaile bat jarri azterketa komunikatiboa egin ostean beharra detektatu den langileen esku.
Txantilo berriak sortu azterketa komunikatiboa egin ostean beharra detektatu den kasuetarako.

Oharra:

Azterketa komunikatibo egin zaie, oro har, lanpostu zerrendakoak izanik, derrigortasun data ezarrita eduki eta dagokien HE edo bat gutxiago egiaztatu dutenei eta, merezimenduzkoa izanik, dagokioen HE egiaztatu dutenei. Nolanahi ere, unean uneko ahalbideen arabera, ekintza horietan (trabakuntzan izan ezik) parte hartzeko aukera emango zaie euskara lanean neurriren batean erabiltzeko gaitasuna duten gainontzeko langileei ere.



IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK

3.4.- Azterketa komunikatiboa egin duten langileen idatzizko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.


EKINTZAK
Aholkularitza eta zuzenketa eskaini Euskara Zerbitzutik azterketa komunikatiboa egin duten langile guztiei.
Idatzizko lana errazteko dauden baliabide ezberdinak (interneteko hiztegiak, banku terminologikoak...) ezagutaratzi azterketa komunikatiboa egin duten langile guztiei, eta euren esku jarri.
E-mailetako sinaduran adierazgarriak txertatu azterketa komunikatiboa egin duten langile guztiei.
Trebatzaile bat jarri azterketa komunikatiboa egin ostean beharra detektatu den langileen esku.
Txantilo berriak sortu azterketa komunikatiboa egin ostean beharra detektatu den kasuetarako.

Oharra:

Azterketa komunikatibo egin zaie, oro har, lanpostu zerrendakoak izanik, derrigortasun data ezarrita eduki eta dagokien HE edo bat gutxiago egiaztatu dutenei eta, merezimenduzkoa izanik, dagokioen HE egiaztatu dutenei. Nolanahi ere, unean uneko ahalbideen arabera, ekintza horietan (trabakuntzan izan ezik) parte hartzeko aukera emango zaie euskara lanean neurriren batean erabiltzeko gaitasuna duten gainontzeko langileei ere.



4.- ITZULPENAK



ITZULPENAK

4.1.- Garai bateko itzulpenen komunikazio-kalitatea hobetu.

4.1. GARAI BATEKO ITZULPENEN KOMUNIKAZIO-KALITATEA HOBETU	2010	2011
4.1.1.-Komunikazio kalitate egokia duten dokumentuak %	JARRAIPENA	

EKINTZAK
Garai batean itzulitako erabilera-maila handiko dokumentu elebidunak aztertu eta txukundu, baita aplikazioetan daudenak ere.
Eguneratutako dokumentuak ezagutzera eman. Langile guztien esku jarri.

4.2.- Euskaraz ez dauden idazkien bertsio elebiduna ziurtatu.

4.2. EUSKARAZ EZ DAUDEN IDAZKIEN BERTSIO ELEBIDUNA ZIURTATU	2010	2011
4.2.1.-Gaztelania hutsezko idazkiak %	JARRAIPENA	

EKINTZAK
Idazki-ereduak moldatu, zuzenagoak eta ulergarriagoak izan daitezen.
Eguneratutako dokumentuak ezagutzera eman. Langile guztien esku jarri.

2010 eta 2011rako baliorik zehaztu ez zaien adierazleei, jarraipena egingo zaie, baina oraingoz helburu zehatzik jarri gabe.



5.- PRESTAKUNTZA OROKORRA



PRESTAKUNTZA OROKORRA

5.1.-Langileen prestakuntza orokorrean euskararen erabilera areagotu.

5.1. LANGILEEN PRESTAKUNTZA OROKORREAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTU	2010	2011
5.1.1.-Ikastaroak, guztira	36	JARRAIPENA
5.1.2.-Eskainitako ikastaroetako hizkuntza		
Euskaraz %	19,45	22
Gaztelaniaz %	80,55	78
5.1.3.-Emandako ikastaroetako hizkuntza		
Euskaraz %	19,45	22
Gaztelaniaz %	80,55	78
5.1.4.-Ikastaroetako hartzaile-kopurua		
Euskaraz %	16,98	19
Gaztelaniaz %	83,02	81

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu langileen prestakuntza orokorrerako, Andoaingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Ezagutza egokia duten langileei euskarazko ikastaroak eskaini.



2011rako baliorik zehaztu ez zaien adierazleei, jarraipena egingo zaie, baina oraingoz helburu zehatzik jarri gabe.

6.-TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK



TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK

6.1. TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOETAN EUSKARAREN ERABILERA GEHITU	2010	2011
6.1.1.-Berariazko aplikazio eta programak guztira	10	JARRAIPENA
6.1.2.-Euskaraz erabilgarri dauden berariazko aplikazio eta programak %	30	50
6.1.3.-Euskaraz erabilgarri dauden berariazko aplikazio eta programak instalatuta daude lanpostuetan %	78,35	78,35
6.1.4.-Instalatutako berariazko aplikazio eta programen euskarazko erabilera %	98,68	98,68
6.1.5.-Programa eta aplikazio orokorrak, guztira	8	JARRAIPENA
6.1.6.-Euskaraz erabilgarri dauden programa eta aplikazio orokorrak %	25	25
6.1.7.-Euskaraz erabilgarri dauden programa eta aplikazio orokorrak instalatuta daude lanpostuetan %	43,86	60
6.1.8.- Instalatutako programa eta aplikazio orokorren euskarazko erabilera %	100	100

2011rako baliorik zehaztu ez zaien adierazleei, jarraipena egingo zaie, baina oraingoz helburu zehatzik jarri gabe.



TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK

6.1.-Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera gehitu.

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu tresna eta aplikazio informatikoetan (batez ere aplikazio edo programa informatiko berrietarako), Andoaingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean: tresna eta aplikazio informatikoen inguruko Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzera emateko, horien betetzea bultzatzeko, euskarazko bertsioa erabiltzeko...
Programa eta aplikazio informatikoetako euskarazko bertsioa jarri, euskaraz erabiltzeko gaitasuna duten pertsonei.
Prestakuntza eskaini programa eta aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzeko.
Lansail guztietako aplikazio informatikoei buruzko datu-bilketa egin eta egoeraren diagnosis osatu, aurrerantzean hartu beharreko erabakiak hartzeko.
Espedienteen kudeaketarako programaren ardura dutenekin elkarlanean jarraitu, Euskararen Erabilera Planean ezarritako hizkuntza irizpideen aplikazioa bermatzeko.
Administrazio digitala posible egingo duten baliabide informatiko eta teknologikoetan euskararen erabilera bermatzeko azterketa egin eta neurriak hartu.



7.-INTERNET ETA INTRANET SAREAK



INTERNET ETA INTRANET SAREAK

7.1.-Erakunde barruko sarean, Intranet sarean, euskararen presentzia bermatu

7.1. ERAKUNDEKO BARRUKO SAREAN, INTRANET SAREAN, EUSKARAREN PRESENTZIA BERMATU	2010	2011
7.1.1.- Intranet sareko edukiak euskaraz %	100	100
7.1.2.-Intranetera euskaraz egin diren sarrerak %	90	90

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak definitu Intranet sarean zintzilikatzen diren edukietan.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean erakundeak Intranet sarerako zeintzuk Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpide ezarri dituen ezagutzera emateko eta horiek betetzera bultzatzeko.

Intranet bidez bidaltzen diren barne-oharretan protokoloak ezarri (nori, euskaraz; nori, gaztelaniaz...).



INTERNET ETA INTRANET SAREAK

7.2.- Web orrietan euskararen presentzia bermatu, komunikagarritasuna zainduta.

7.2. WEB ORRIETAN EUSKARAREN PRESENTZIA BERMATU, KOMUNIKAGARRITASUNA ZAINDUTA	2010	2011
7.2.1.-Web orrietako edukiak euskaraz %	100	100
7.2.2.-Web orrietara egindako bisitak euskaraz %	66,6	68

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak definitu Internet sarean zintzilikatzen diren edukietan.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean erakundeak Internet sarerako zeintzuk Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpide ezarri dituen ezagutzera emateko eta horiek betetzera bultzatzeko.

Herritarrak kontuan hartu (adibidez, kanpaina egin herritarren artean web gunera euskaraz sartzera anima daitezen).



8.- ARGITALPENAK



ARGITALPENAK

8.1.-Argitalpenetan euskararen presentzia gehitu.

8.1. ARGITALPENETAN EUSKARAREN PRESENTZIA GEHITU	2010	2011
8.1.1.-Argitalpenak, guztira	32	JARRAIPENA
8.1.2.-Argitaratzen diren aldizkari, liburu, katalogo, DVDen... hizkuntza		
Euskaraz %	9,38	9,38
Gaztelaniaz %	0	0
Ele bitan %	90,62	90,62

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu edozein euskarritako argitalpenetarako, Andoaingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean erakundeak argitalpenei dagokienez ezarri dituen hizkuntza-irizpideei buruz.

Argitalpenetako hizkera argia, zuzena eta egokia izatea sustatu.

Udalaren argitalpen eta dokumentu guztietan Udalak berak finkatutako toponimoen edo nomenklatorraren erabilera bermatzeko neurriak hartu.



2011rako baliorik zehaztu ez zaien adierazleei, jarraipena egingo zaie, baina oraingo helburu zehatzik jarri gabe.

9.-HIZKUNTZA PAISAIA



HIZKUNTZA PAISAIA

9.1.-Erakunde barruko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia gehitu.

9.1. ERAKUNDE BARRUKO HIZKUNTZA-PAISAIAN EUSKARAREN PRESENTZIA GEHITU	2010	2011
9.1.1.- Errotulu eta noizbehinkako oharretako hizkuntza		
Euskaraz %	16,6	17
Gaztelaniaz %	16,80	12
Ele bitan%	66,6	71
9.1.2.- Papeleriako hizkuntza		
Euskaraz %	100	100
Gaztelaniaz %	0	0
Ele bitan%	0	0
9.1.3.- Tresneriako (fotokopiagailu, kafe-makina...), hizkuntza		
Euskaraz %	0	10
Gaztelaniaz %	100	70
Ele bitan%	0	20

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu hizkuntza-paisaiaren arloan (noiz ele biz, noiz euskara hutsean...) , Andoingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean erakundeak hizkuntza-paisaiaren arloan ezarri dituen hizkuntza-irizpideez, eta horiek errespetatzera bultzatu; noizbehinkako oharrak euskaraz ere jartzera animatu.

Hizkuntza-paisaia aztertu eta gabeziak antzeman ondoren, gaizki daudenak zuzendu eta gaztelaniaz daudenak euskaraz ere jarri, gutxienez .

Hornitzaileekin harremanetan jarri, tresna berrien paneletan euskararen erabilera bermatzeko.

Euskara nabarmendu ele bietan dauden ohar edo errotuluetan (tamaina, kokapena...).



HIZKUNTZA PAISAIA

9.2.- Administrazioaren eraginpeko bide-seinale, toponimia eta gainerako noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handitu, komunikagarritasuna zainduta

9.2. ADMINISTRAZIOAREN ERAGINPEKO BIDE-SEINALE, TOPONIMIA ETA GAINERAKO NOIZBEHINKAKO OHARRETAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU, KOMUNIKAGARRITASUNA ZAINDUTA	2010	2011
9.2.1.- Bide-seinaleetako hizkuntza %		
Euskara %	JARRAIPENA	
Gaztelania %	JARRAIPENA	
Ele biak %	JARRAIPENA	
9.2.2.- Herriko izendegiko (toponimia, kale, parke publiko,...) hizkuntza %		
Euskara %	JARRAIPENA	
Gaztelania %	JARRAIPENA	
Ele biak %	JARRAIPENA	

EKINTZAK
Administrazioaren eraginpeko herriko seinale guztien gaineko azterketa egin eta gabeziak identifikatu.
Administrazioaren eraginpeko bide-seinaleak gutxienez euskaraz ere jartzeko prozedurak zehaztu, kasuan kasuko arduradunarekin batera.
Herriko izendegia (toponimoak, kale, parke publiko...) gutxienez euskaraz ere jarri eta oker daudenak zuzendu.
Euskararen presentzia bermatu herriko obretan.

2010 eta 2011rako baliorik zehaztu ez zaien adierazleei, jarraipena egingo zaie, baina oraingoz helburu zehatzik jarri gabe.



10.-IRAGARPENAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK



IRAGARPENAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK

10.1. IRAGARPEN, PUBLIZITATE ETA KANPAINETAN EUSKARAREN PRESENTZIA GEHITU KOMUNIKAGARRITASUNA ZAINDUTA	2010	2011
10.1.1.- Prentsa-oharretako hizkuntza		
Euskara %	30,62	30,62
Gaztelania %	20,62	20,62
Ele biak %	48,75	48,75
10.1.2.- Iragarkietako hizkuntza		
Euskara %	0	0
Gaztelania %	0	0
Ele biak %	100	100
10.1.3.- Iragarki-taulako oharretako hizkuntza		
Euskara %	0	0
Gaztelania %	0	0
Ele biak %	100	100
10.1.4.- Publizitate-kanpainetako hizkuntza		
Euskara %	30	30
Gaztelania %	16,66	16,66
Ele biak %	53,33	53,33
10.1.5.- Megafoniako hizkuntza		
Euskara %	0	0
Gaztelania %	0	0
Ele biak %	100	100




IRAGARPENAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK

10.1.- Iragarpen, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia gehitu komunikagarritasuna zainduta.

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu publizitate eta kanpainetan, Andoaingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen eta arduradun politikoen artean erakundeak iragarpen, publizitate eta kanpainen arloan ezarri dituen hizkuntza-irizpideei buruz.
Publizitatea egiterakoan, hizkuntza bakoitzaren berezitasunak eta esateko moduak errespetatu: iragarkiak sortzean...
Euskara argi, zuzen eta egokia erabili.



11.- DIRU-LAGUNTZAK



DIRU-LAGUNTZAK

11.1.- Diru-laguntzak esleitzerakoan, hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatu.

11.1. DIRU-LAGUNTZAK ESLEITZERAKOAN, HIZKUNTZA-BALDINTZAK BETETZEN DIRELA BERMATU	2010	2011
11.1.1.-Diru-laguntzetako hizkuntza-irizpideen txertatze maila %	33,33	50
11.1.2.-Diru-laguntzak ematerakoan, hizkuntza-irizpideak betetzen dira %	50	70
11.1.3.-Diru-laguntzak eman ondoren, hizkuntza-irizpideen ezarpenari jarraipena egiten zaio %	25	100

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu diru-laguntzen arloan, Andoaingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta, eta betetzen direla bermatu. Ondoko esparru hauei begira, gutxienez: enpresa-mundua; aisi-taldeak, kirol taldeak, kultur elkarteak, komunikabideak, hizkuntza-paisaia (merkataritza, ostalaritza, teknologia berriak...).

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean erakundeak diru-laguntzen arloan ezarri dituen hizkuntza-irizpideei buruz.



12.-KONTRATAZIOAK



KONTRATAZIOAK

12.1.-Kontratazioaren fase guztietan hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatu.

12.1. KONTRATAZIOAREN FASE GUZTIETAN HIZKUNTZA-BALDINTZAK BETETZEN DIRELA BERMATU	2010	2011
12.1.1.-Kontratazioetako hizkuntza-irizpideen txertatze maila %	92,85	92,85
12.1.2.-Kontratazioak esleitzerakoan, hizkuntza-irizpideak betetzen dira %	100	100
12.1.3.-Kontratazioak esleitu ondoren, hizkuntza-irizpideen ezarpenari jarraipena egiten zaio %	0	30

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu, Andoaingo Udalak berariaz onartutako arauak (1/88 Udal Ordenantza eta 2008-2012rako onartutako III. plana) eta indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta, eta betetzen direla bermatu. eta betetzen direla bermatu kontratazio administratiboan arloan.
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu erakundeko kontratazio-organoetan, baldintza-orrietan hizkuntza-baldintzak txertatu eta bete egiten direla ziurtatzeko.
Herritarrekiko harremanak eragiten dituzten kontratazioetan euskarazko baliabideen eta zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna duten langileen presentzia bermatu.
Jadanik eginda dauden kontratazio administratiboetako hizkuntza betebeharren jarraipena egin.



KONTRATAZIOAK

Oharra: kontratazioei dagokienez, hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpide berririk onartzen ez den bitartean, "Andoaingo Udalaren kontratu administratiboetarako hizkuntza betebeharrak" agiria egongo da indarrean. Nolanahi ere, agiri horretan honako aldaketa hauek egitea onartzen da:

- 3.a) ataleko eta 4.2.1.a) ataleko laugarren paragrafoan honako aldaketak:
 - "1- Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzen dituen apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak arautzen dituen titulu eta ziurtagiriak" dioen lekuan honakoa esan behar du "1- 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koak, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denak, arautzen dituen titulu eta ziurtagiriak".
 - "4- Ikastetxearen ziurtagiria, adierazten duena interesatuak bere ikasketa ez unibertsitarioak "D" eredian egin dituela, baliagarria izango da 1. eta 2. mailako hizkuntza-gaitasunak egiaztatzeko" dioen lekuan honakoa esan behar du "4- Ikastetxearen ziurtagiria, adierazten duena interesatuak derrigorrezko hezkuntzari dagozkion ikasketak eta/edo batxilergoari dagozkionak "D" eredian egin dituela, baliagarria izango da 1. eta 2. mailako hizkuntza-gaitasunak egiaztatzeko".
- 3.a) ataleko eta 4.2.1.a) ataleko bosgarren paragrafoa honela geratuko da idatzita:
 - "Kontratazio-mahaiak "A" kartazala edo jardunbide negoziatuko kartazal bakarra ireki eta Euskara Zerbitzuaren esku jarriko ditu aurkeztutako agiriak, euskara-gaitasunari buruzko txostena egin dezan, hori gabe ezingo baitu dokumentazioa kalifikatu. Lizitatuak aurkezturiko dokumentazioaren barruan hizkuntza-gaitasunari dagokion ziurtagiririk ez badago edo aurkeztutakoak nahikoak ez badira, Euskara Zerbitzuak dagozkion azterketak antolatuko ditu."
- 3.a) ataleko eta 4.2.1.a) ataleko azken paragrafoa honela geratuko da idatzita:
 - "Behin kontratazioa eginda, enpresa esleipendunak euskara-gaitasuna egiaztaturiko langileren bat aldatuz gero, aldatutako langilearen lekua beteko duenak egiaztatu egin beharko du hemen xedatutako hizkuntza-gaitasuna. Beste hainbeste egin beharko du subrogatze bidez kontraturiko langileen ordezkapenen kasuan ere."

2011. urtean zehar aztertu egingo da "Andoaingo Udalaren kontratu administratiboetarako hizkuntza betebeharrak" izeneko agiria – aurreko puntuan esandako baldintzetan indarrean dagoena – EBPN honen irizpideetara eta, bereziki, EBPNren 4. atalekoetara guztiz egokitu dadin, kasua balitz, egoki liratekeen aldaketak eginez.



“Andoaingo Udalean Euskara Erabiltzeko III.Plana 2008-2012” agiriak indarrean jarraitzen du EBPNren 4. atalari dagokion Euskararen Erabilera Plan honetan ezarritakoari kontrajartzen ez zaizkion xedapenetan eta/edo plan honek aurreikusi gabeko guztian.



5. LAN MUNDUA



5. LAN MUNDUA



HELBURUA ETA ADIERAZLEAK

5.1. LAN MUNDUAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU.	2010	2011
Erabilera plana duten enpresak %	1,7	3
Euskararen erabilerari lotuta Bikain ziurtagiria duten enpresak %	0	0

EKINTZAK

5.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

- Buruntzaldeko lan munduan eragitea euskararen erabilera normalizatzeko, Buruntzaldeko udalen programan aurreikusitakoaren arabera.
- 2011n, 10 langiletik gorako enpresei zuzendutako "Baietz gurean!" egitasmoaren barruan:
 - 46 enpresarekin harremanetan jarri, bisitatu, eta segmentazioaren arabera proposamenak egin.
 - 36ri "Baietz gurean!" proposatu, eta horietatik 16k hizkuntzak kudeatzeko neurriak hartzea lortu:
 - 8 enpresarekin "Baietz gurean!" hitzarmena egin udalekin, neurketa egin eta Bikain ziurtagiria lortzeko neurriak proposatu.
 - 8 enpresarekin neurri apalak hartzea hitzartu udalekin, eta Udal Euskara Zerbitzuetara bideratu.
- "Baietz gurean!" egitasmoaren barruan, 2011n, 10 enpresarekin landu Lantokiko Prestakuntza Euskaraz:
 - 5 enpresarekin hitzarmena udalekin (2009-2010 kudeaketa-planekoak), eta ikasleen praktikak hobetzeko neurriak hitzartu, jarraipena egin, eta ebaluatu.
 - Beste 5 enpresarekin Lantokiko Praktikak Euskaraz hitzarmena udalekin, eta diagnostikoa egin.



5. LAN MUNDUA



5.1.2. KOMUNIKAZIOA

- Sentiberatze eta komunikazio kanpainak egin
 - 2011n, "Baietz gurean!"-ren barruan, buruntzaldeko egitasmoko komunikazio plana aurrera eraman: 9 Buletin eta 4 Berri argitaratu; 8 ikastetxetan hitzaldiak eman; kanpaina bat garatu: mezu birala edo bideoa.

5.1.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Saritu euskararen erabilera areagotzeko planak abian jartzen dituzten enpresak: diru-laguntzak eman jarraipenerako, aipamen berezia herriko web orrian...
 - 2011n, "Baietz gurean!" egitasmoan sartu diren eta helburuak bete dituzten enpresei diru-laguntzak eskaini.
- Gida-baimenaren prestaketa lana eta azterketak euskaraz egin daitezzen sustatzea. Horretarako, autoeskolek erabiltzen duten materiala, hau da, testak eta eskuliburua erosteko laguntza ekonomikoa ematea. B-gida-baimena lortzeko prozesu osoa (ikasketak nahiz azterketa bera) euskaraz egiten dutenen artean, urtean gida-baimen baten parte teorikoaren kostua zozketatzea.
 - Auto-eskoletan gazteek B gida-baimena euskaraz atera dezaten sustatu eta auto-eskolei zerbitzu hori eskaintzeko merkatuan dauden baliabideen berri eman, Buruntzaldeko udalen programan aurreikusitako moduan.



5. LAN MUNDUA



HELBURUA ETA ADIERAZLEAK

5.2. MERKATARITZA ETA OSTALARITZAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU.	2010	2011
Merkataritza Euskaduntzeko Plan Integrala (MEPI)	10	20
Euskararen erabilerari lotutako Bikain zigilua duten establezimenduak %	0	0

EKINTZAK

5.2.1. SENTSIBILIZAZIOA

Salkinekin elkarlanean, nolahi ere, udalerriko merkataritza-establezimendu guztiei zuzendua:

- Herritarrengan eta merkatarari edo ostalariengan eragin, Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua bereganatzearen onurez, herritarren hizkuntza hautua errespetatzeko lehen hitza euskaraz izan dadin, hizkuntza paisaia zaintzeko...
- Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri.

5.2.2. KOMUNIKAZIOA

Salkinekin elkarlanean, nolahi ere, udalerriko merkataritza-establezimendu guztiei zuzendua:

- Ezagutzera eman euskararen erabilera normalizatzeko Udalean bertan eta beste erakundeetan eskaintzen diren aukera eta programak: diru-laguntzak errotuluak euskaraz jartzeko, laguntza teknikoak itzulpenetarako...
- Udalean establezimendu komertzial bat irekitzeko baimena eskatzen den bakoitzean euskararen erabilera areagotzeko dauden laguntzen inguruko informazioa eskaini MEPIetan eta dagokion Udal Ordenantzan aurreikusitako moduan (diru laguntzak, itzulpen zerbitzua, testuen zuzenketa eta hizkuntzazko aholkularitza, euskara normalizatzeko plan integralak, sektorekako materialak...)
 - Merkatariei beraientzat zuzenduriko zerbitzuen eta diru-laguntzen berri emateko karpeta erabili, Buruntzadako udalen programan aurreikusitako moduan.



5. LAN MUNDUA



5.2.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Salkinekin koordinatuz, baina, nolanahi ere, Andoaingo merkataritza-gune guztiei, proposamen orokor bat luzatu euskararen erabilera gehitzera bideratuta: ezagutza lantzeko, errotulazioan eta papelerian euskara erabiltzeko, material idatzien katalogoa (merkealdiak, itxita/zabalik)...
- Laguntza tekniko eta ekonomiko eskaini errotuluak aldatzeko (toldoetan, ibilgailuetan...), itzulpenak bideratzeko: Laguntza tekniko eta ekonomiko eskaini ondoko euskarrietarako: errotuluak, irudi korporatiboa daraman kanpoko erabilerako dokumentazio eta materiala, web gunea eta euskararen erabilera normalizatzeko lagungarri diren programa informatikoak; betiere, gai hau berariaz arautzen duen Udal Ordenantzan jasotzen diren baldintza, betebeharrak eta gainerako zehaztapenak kontuan hartuta.
- Itzulpen eta zuzenketa zerbitzua, eta aholkularitza jarri establezimenduen esku.
- Saritu merkataritza eta ostalaritza ahalegina: Udalaren webean eskegi...
- Enpresa txikietan euskara normalizatzeko plana burutzeko aholkularitza tekniko jarri establezimenduaren esku, MEPIen arabera.



6. AISIA



6. AISIA



HELBURUA ETA ADIERAZLEAK

6.1. AISIALDI ESKAINTZAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU.	2010	2011
Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten aisialdi taldeak %	42,85	42,85
Udalak euskaraz antolatzen dituen aisialdi ekimenak %	84,52	88

EKINTZAK

6.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

- Aisialdi taldeetan eragin, etorri berriak, euskara eta aisialdia uztartuko dituzten ekimenak antola ditzaten.

6.1.2. KOMUNIKAZIOA

- Informazioa eman herritarrei euskarazko aisialdi eskaintzaz: triptikoak osatu, web orrian zintzilikatu...

6.1.3. EKITALDIAK ANTOLATU

- Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza (Goazen jolastera, udako ludoteka...); opor garaietako (tailerrak, informatika...); jolasak (herri-kirolak, jokoak...).

6.1.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Laguntza eskaini, aisialdi taldeetan sortu eta herritarrei helarazten zaien papeleria euskaraz egon dadin edota kalitatezkoa izan dadin: diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza...
- Andoaingo 1/88 Udal Ordenantzako 31. artikulua arabera jokatu elkarteei diru-laguntzak ematerako garaian eta instalazioak uzterakoan, dagozkien hizkuntza-irizpideak aplikatuz (euskararen presentzia bermatu beharko dute papelerian, jendaurreko agerraldietan, megafonian...)



7. KIROLA



7. KIROLA



HELBURUA ETA ADIERAZLEAK

7.1. KIROL ESKAINTZAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU.	2010	2011
Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten kirol taldeak/klub-ak %	87,5	87,5
Kirol taldeetan euskaraz dakiten begiraleen presentzia %	91	91
Herriko kiroldegian euskaraz eskaintzen diren kirol ikastaroak (16 urte bitarte) %	100	100
Herriko kiroldegian euskaraz eskaintzen diren kirol ikastaroak (16 urtetik gorakoentzat) %	57,4	60
Herriko kiroldegian euskarazko ikastaroetan partaidetza (16 urte bitarte) %	100	100
Herriko kiroldegian euskarazko ikastaroetan partaidetza (16 urtetik gorakoentzat)%	53,5	55
Euskararen presentzia herriko kirol gune nagusietako paisaian %	98	98

EKINTZAK

7.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

- Hitzarmena sinatu herriko Klub eta kirol taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko, eskola-kirola bereziki zaindu.

7.1.2. KOMUNIKAZIOA

- Informazioa eman herritarrei euskarazko kirol eskaintzaz: triptikoak osatu, web orrian zintzilikatu...



7. KIROLA



7.1.3. EKITALDIAK ANTOLATU

- Jendaurreko kirol jardueretan euskararen presentzia bultzatu (futbol zelaian, kiroldegian, pilotalekuan...) kartelak, megafonia, esatariak...
- Herriko kiroldegiko haur eta gazteentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitu, monitoreen euskara gaitasuna ahalik eta gehien bermatuz.
- Herriko kiroldegiko helduentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitu.
 - Kiroldegiko ikastaroak euskaraz emateko programa: kiroldegiek 16 urtetik gorakoentzat antolatzen dituzten ikastaroetan euskararen erabilera progresiboki areagotzeko. Buruntzaldeko udalen programan aurreikusia.

7.1.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Laguntzak bideratu kirol jardueretan euskaraz dakiten begiraleen presentzia bermatzeko: begiraleen zerrenda, pizgarri ekonomikoak, bitartekaritza...
- Baliabide teknikoak eskaini kirol taldeetan sortu eta herritarrei helarazten zaien papeleria euskaraz egon dadin edota kalitatezkoa izan dadin: diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza...
- Andoaingo 1/88 Udal Ordenantzako 31. artikulua araberak jokatu elkarteei diru-laguntzak ematerako garaian eta instalazioak uzterakoan, dagozkien hizkuntza-irizpideak aplikatuz (euskararen presentzia bermatu beharko dute papelerian, jendaurreko agerraldietan, megafonian...)



8. KULTURGINTZA



8. KULTURGINTZA

HELBURUA ETA ADIERAZLEAK



8.1. KULTUR ESKAINTZAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU.	2010	2011
Kultur programazioan euskaraz antolatutako ekimenak %	35	38
Euskaraz antolatutako ekimenetan partaidetza %	36	38
8.2. EUSKARAZKO KULTUR EKOIZPENAK ETA SORMENA BULTZATU.	2010	2011
Herritarren euskarazko kultur ekoizpenak sustatzera bideratutako baliabideak	10851,16	10851,16
Lagundutako ekoizpen/proiektu kopurua	7	7
Lagundutako pertsona/talde kopurua	17	17
8.3. EUSKARAZ IRAKURTZEKO ZALETASUNA HANDITU.	2010	2011
Udal liburutegian euskaraz erabilgarri dauden irakurgaiak %	38	38
Liburutegian herritarrek euskaraz hartutako irakurgaiak %	44	44
8.4. TOPONIMIA, HISTORIA, OHITURAK JASO ETA HEDATZEA SUSTATU.	2010	2011
Sortu eta hedatutako produktu kopurua, euskarria edozein delarik ere (liburuak, jolasak, ...)	4	4
8.5. ERLIJIO SAIOETAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU.	2010	2011
Sinesmen-mota guztietako saioak aintzat hartuta, euskararen erabilera %	58,3	58,3
Sinesmen-mota guztiak aintzat hartuta, euskarazko erlijio saioetako partaidetza %	61,7	61,7



8. KULTURGINTZA



8.1. KULTUR ESKAINTZAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU.

8.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

- Euskara sustatzeko programa berezietan ikastetxeak ere parte hartzera bultzatu.
- Herriko kultur elkarteekin elkarlana bultzatu, haietan euskararen erabilera sustatzeko.

8.1.2. KOMUNIKAZIOA

- Herritarren artean euskarazko kultur eskaintza ezagutarazi: gidak, katalogoak, web orriak, sakelekoa erabilia...
 - Euskarazko produktuen katalogoa ezagutarazi, euskarazko produktuen kontsumoa sustatzeko, Buruntzaldeko udalen programan aurreikusitako moduan.

8.1.3. EKITALDIAK ANTOLATU

- Herriko jaietan antolatzen diren ekitaldietan euskararen erabilera bermatu (kartelak, esku orriak, megafonia, esatariak...).
- Haurrentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu euskaraz.
- Gazteentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu euskaraz: erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kantak eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso-tramak...
- Helduentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu: erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kantak eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso-tramak...
- Euskarazko kultur zirkuitoetan parte hartu.
- "Kulturako ikastaroak euskaraz emateko" egitasmoa burutu, Hezkuntza eta Kultura lansailak antolatzen dituen ikastaroetan euskararen erabilera progresiboki areagotzeko, Buruntzaldeko udalen programan aurreikusitako moduan.



8. KULTURGINTZA



8.1.5. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Baliabide teknikoak eskaini kultur elkartek sortu eta plazaratu nahi duten papeleria euskaraz egon dadin edota egokia izan dadin: diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza...
- Euskaraz antolatu nahi diren kultur ekintzetarako beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak eskaini (zine aretoak, megafonia, hitzaldietarako gunea, bestelako azpiegitura...) baldin eta baldintza batzuk betetzen badira.
- Andoaingo 1/88 Udal Ordenantzako 31. artikulua araberak jokatu elkarteei diru-laguntzak ematerako garaian eta instalazioak uzterakoan, dagozkien hizkuntza-irizpideak aplikatuz (euskararen presentzia bermatu beharko dute papelerian, jendaurreko agerraldietan, megafonian...)



8. KULTURGINTZA



8.2. EUSKARAZKO KULTUR EKOIZPENAK ETA SORMENA BULTZATU.

8.2.1. SENTSIBILIZAZIOA

- Herritarren artean euskarazko kultur produkzioen sormena eta kontsumoa bultzatu

8.2.2. KOMUNIKAZIOA

- Herritarren artean euskarazko kultur produkzioa ezagutarazi: gida, katalogo, web orri, euskaltegi eta zerbitzu publikoetako gune ezberdinetan: Urigainen, anbulatorioan, Ambrosiaenean, Zahar Etxean, Kiroldegian, Basteron
- Euskarazko kultur estreinaldiak ezagutzera eman eta sarrerak zozketatu: dantza, erakusketa, zinema, antzerkigintza...

8.2.3. EKITALDIAK ANTOLATU

- Kultur arloko lehiaketak antolatu, generoa eta adina aintzat hartuta: literatura (sms-ena; ipuinak webean; maitasun istorioak); lekuan lekuko lehiaketak (Erreportari Gaztea saria, Martin Ugalde ipuin lehiaketa...); argazkigintza, bideoklipak (sakelekoaz egindako grabazioena...), marrazkiak, dantza (koreografiak...)...
- Rikardo Arregi Kazetaritza Saria antolatu

8.2.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Ekoizpen berritzaileak saritu: kazetaritza, kantagintza, bertsoingintza, antzerkigintza...
- Lokalak, guneak eskaini kultur produkzioen erakustoki gisa.



8. KULTURGINTZA



8.3. EUSKARAZ IRAKURTZEKO ZALETASUNA BULTZATU.

8.3.1. KOMUNIKAZIOA

- Euskal literaturako titulu nagusiak ezagutzera eman: Udalaren web orrian... Beterriko Liburuen eta Beterriko idazleek idatzitako liburuen proiektio plataforma jarri web gunean.

8.3.2. EKITALDIAK ANTOLATU

- Zentro publikoetan (osasun zerbitzua, Udalaren bulegoak...) irakurgai utzi euskarazko aldizkari eta liburuak.
- Euskaraz irakurtzeko baliabideak eskaini gaztetxoei.



8. KULTURGINTZA



8.4. TOPONIMIA, HISTORIA, OHITURAK JASO ETA HEDATZEA SUSTATU.

8.4.1. SENTSIBILIZAZIOA

- Herritarrengan eragin euskal kultura, kondairak eta toponimia ezagutzera emanda: gida bat, argitalpen txiki bat...

8.4.2. EKITALDIAK ANTOLATU

- Herriko istorio zaharrak, kondairak, ohiturak... ezagutzera eman: hitzaldiak ikastetxeekin elkarlanean; herriko adineko jendearekin elkarlanean, jai esanguratsuetan hizlari bat ekarri, grabaketak egin eta web orrian jarri...
- Abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpainak abian jarri ("Apelliduak abizendu"), Buruntzaldeko udalen programan aurreikusitako moduan.

8.4.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Toponimia ondarea jaso, argitaratu eta hedatu
 - 1/88 Udal Ordenantzako 29. artikuluari jarraiki, Andoaingo toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoen berrikuspena egingo du Andoaingo Udalak.
- Herritarrentzat eta Udalarentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak euskaraz ikertzeko beka eskaini: urtekariak, egutegiak... egiteko.



8. KULTURGINTZA



8.5. ERLIJO SAIOETAN EUSKARAREN ERABILERA BERMATU.

8.5.2. LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINI

- Laguntza tekniko eskaini, erlijio saioetako materialaren itzulpenarako eta testuak kalitatezkoak direla bermatzeko.



9. KOMUNIKABIDEAK



9. KOMUNIKABIDEAK



HELBURU ETA ADIERAZLEAK

9.1. HERRI EDO ESKUALDE MAILAN EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN GARAPENA SUSTATU EDOTA EUSKARAREN ERABILERA BULTZATU EGUNGO KOMUNIKABIDEETAN.	2010	2011
Euskara hutsezko komunikabideak %	33,33	33,33
Euskararen erabilera euskara hutsezkoak ez diren tokian tokiko komunikabideetan %	10	15
9.2. PUBLIZITATEAN EUSKARAREN PRESENTZIA BULTZATU.	2010	2011
Udalak eta bere menpeko erakundeek euskaraz argitaratutako publizitatea %	97,5	97,5



9. KOMUNIKABIDEAK



9.1. HERRI EDO ESQUALDE MAILAN EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN GARAPENA SUSTATU EDOTA EUSKARAREN ERABILERA BULTZATU EGUNGO KOMUNIKABIDEETAN.

9.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

- Gaztelania nagusi duten komunikabideetan euskararen presentzia areagotu
- Eskualdeko herri komunikabideen arloan eragiteko programa garatu lankidetzaz sustatzeko, Buruntzaldeko udalen programan aurreikusitako moduan

9.1.2. ESKAINTZA SUSTATU

- Eskualdean ari diren euskarazko komunikabideen hedapena lagundu (astekariak, hilabetekariak...), harpidetzak zozketatuz, herriko web orriari linka eginez eta diruz lagunduz.
 - Aiurri Txiki argitalpenaren banaketa: eskualdean ekoiztutako argitalpena Buruntzaldeko gaztetxoaren artean sustatzeko. Buruntzaldeko udalen programan aurreikusia.
- Sarea euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu.

9.2. PUBLIZITATEAN EUSKARAREN PRESENTZIA BULTZATU.

9.2.1. SENTSIBILIZAZIOA

9.2.2. ESKAINTZA SUSTATU

- Udalak egiten dituen publizitate ekimenetan euskara lehenetsi.



10. TEKNOLOGIA BERRIAK



10. TEKNOLOGIA BERRIAK



10.1. TEKNOLOGIA BERRIETAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITU.	2010	2011
Udalaren web orrira euskaraz egiten diren sarrerak %	66,6	68
Udalaren euskara txokora egiten diren sarrerak %	12,3	15
Sarean euskararen presentzia gehitzera bideratutako baliabide kopurua (€)	15056,2	17000
Udal liburutegiko teknologia berrietan oinarritutako euskarazko materialak %	37	37
Udal liburutegiko teknologia berrietan oinarritutako euskarazko materialaren erabilera %	36,59	37,5
Buruntzaldeko web gunera euskaraz egiten diren sarrerak %	73,2	73,2

10.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

- Herritarrengan eragin, batez ere gazteenengan, euskaraz jo dezaten sarera, informazio bila.
- Herritarrengan eragin, batez ere gazteenengan, sakelakoetan, ipodetan eta gainerako tresnetan euskarazko menuak, mezuak... erabili eta egin ditzaten.

10.1.2. KOMUNIKAZIOA

- Herritarrei teknologia berrien arloan euskaraz sortzen dena ezagutzera eman: www.euskara.euskadi.net -era linkak...
- Herritarren eskura jarri euskararen kalitatea hobetzea helburu duten argitalpenak: idatzien ereduak, hiztegi elektronikoak, SMS liburuxkak...
 - SMS liburuxkak: Buruntzaldeko DBHko ikastetxeetan SMSei buruzko saiok eskaini, liburuxkak banatu eta web orriaren bidez lehiaketa antolatu, Buruntzaldeko udalen programan aurreikusitako moduan.



10. TEKNOLOGIA BERRIAK



10.1.3. ESKAINTZA SUSTATU

- Udalaren web orrian Euskararen Txokoa sortu eta euskararekin zerikusia duten edukiak (azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzak, euskararen normalizazio prozesuan sortzen den informazioa, ekimenak, egitarauak herrian bertan egiten diren kale neurketak edo bestelakoak...).
- Buruntzaldeko web gunea (administrazioaren atala): "Euskaldun aktiboa" definitu eta administrazioarekiko harremanetan euskararen erabilera bultzatzeko jarduerak zehaztu eta martxan jarri. Buruntzaldeko udalen programan aurreikusia.
- Buruntzaldeko web gunea: Buruntzaldeko udalen egitasmo eta horietan argitaratutako euskarri eta materialari zabalkunderik handiena eman modu argi eta erakargarri baten bidez. Buruntzaldeko udalen programan aurreikusia.

10.1.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Herritarrek sarean jartzen duten informazioa euskaraz ere egon dadin laguntzak bideratu: testuak euskaraz emateko, zuzentzeko...



Indarrean dauden hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak eta EBPN honetatik eratortzen direnak dokumentu bakar batean bateratuko dira 2011. urtean, 1/88 Udal Ordenantza kontuan hartuz.

